



# Maileguen erabilera ekialdeko eskuizkribu batean

Irantzu Epelde

► **To cite this version:**

Irantzu Epelde. Maileguen erabilera ekialdeko eskuizkribu batean. Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", ASJU-Universidad del Pais Vasco, 2009, pp.261-282. artxibo-00645908

**HAL Id: artxibo-00645908**

**<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00645908>**

Submitted on 28 Nov 2011

**HAL** is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

# MAILEGUEN ERABILERA EKIALDEKO ESKUIZKRIBU BATEAN

Irantzu Epelde  
(CNRS IKER, UMR5478)

## Abstract

*In this article I examine the use of borrowing in a Basque manuscript from the Bibliothèque Nationale in Paris. The manuscript is a cooking book, and it contains 28 recipes. We do not know who the author is, nor the year in which it was written (see the introductory section). Dialectwise, the text should be ascribed to the oriental dialects (Souletin in particular), and both the expressions and the naturalness of the turns of phrase employed by the author that Basque was his or her mother language. At the same time, the big number of French borrowed expressions in the text shows that the author was not afraid of making extensive use of foreign terms. Sometimes, those borrowings do not seem to obey the phonological and morphological rules of the Basque language. This feature of the text follows probably from the technical status of the material, and the fact that the text is a translation. In this paper, I present the list of borrowings employed by the author, and point out the extents to which those borrowings have undergone phonological and morphological accommodation to Basque.*

## 1. Sarrera

Lan honetan aztergai duguna zubereraz idatzitako sukalde-liburuxka bat da, 29 orrialdetako eta, dakigula, inoiz argitara eman gabea. Eskuizkribua Pariseko Bibliothèque Nationale-ean dago, eta “Celtique et Basque 119” erreferentzia darama.<sup>1</sup> Egoera onean dago jatorrizkoa, eta ondorioz letra argi eta erraz ulertzeko moduan ageri da (faksimile ediziorako, ik. Epelde inprim.).

Testua, bere laburrean, euskara hizkuntza paisaian nagusi eta osoki naturala zeneko lekukotza bat da, eta alde horretatik orduko Zuberoako herri hizkerez argitasunik ekar dezake.<sup>2</sup> Oraingo honetan, halere, bide hori hartu beharrean, erdarak testuan duen presentziaz arduratuko naiz, eta, zehatzago, hizkuntza kontaktuak eragindako fenomeno nagusienetako batez: mailegutaz.

---

<sup>1</sup> Aurelia Arkotxa ikerle eta IKER-kideari zor diogu aurkikuntza. Eskerrik zintzoenak Aureliari, urteetan biblioteketako funts gordeak arakatzear hartu duen artagatik, eta, lan honi dagokionez, eskuizkribua aztertzeko eta argitaratzeko baimena eta kuraia eman izanagatik.

<sup>2</sup> Hainbat ezaugarriren baturak erakusten dute egilea hizkeraz zuberotarra zela: *ü* [y]-ren erabilerak, *u* + *a* bilkurako *u*-ren erabateko palatalizazioak (*buruan* > *burian*), *-on* > *-u*, *-ü* bilakaerak *oinhou* ‘tipula’ bezalako hitzetan, mugagabearen erabilerak *çarico duçu hour* bezalako egituretan, zuka erabiltzeak...

Maileguz eta frantsesezko itzuliz ongi betea dago testua. Lehenbiziko begi kolpetik nabarmen ikus dezake irakurleak hori. Hartan sukaldaritzako termino bereziak erabiltzen direnez, zenbaitetan euskaraz falta diren itemak izendatzera datoz mailegu horiek.<sup>3</sup> Beste batzuetan, berriz, euskarazko ordainak eskueran izanda ere saihestu egiten ditu egileak, eta maileguz beldur gabe eta ausarki ordezkaten. Maiz irudipena da testua itzulpena izatea egon daitekeela horren azpian —itzultzaileak begien aurrean behar zuen jatorrizko erdal testua—, baina beste batzuetan besterik gabe garbizalekeriarik eza eta konplexurik eza erakusten dutela iruditzen zaigu. Guztiz segurua da euskarazkoa itzulpena dela, egileak berak aipatzen baitu pasarte batean: “Behiaren filetaren farsitceco maneria hao estuçü francian eçaguturiq içan lan hounen traducto-raq erakhoussi artecan (*sic*)” (‘behiaren azpizuna betetzeko modu hau ez da Frantzian ezagutu lan honen itzultzaileak erakutsi artean’). Jatorrizko bertsiorearen berririk, ordea, ez daukagu.

Bestalde, eskuizkribuko maileguren artean asko aspalditik euskarak beretuak dituen item lexikoak dira. Weinreich-ek (1953: 1) *interferentzia* esan zien halakoei, hizkuntzen arteko kontaktuak eragindako gertakariak azterbidean abiatu zireneko hastapen haietan. Geroagoko hizkuntzalari batzuen (ad. Clyne 2003: 72) iritziz, bereizi egin beharko lirateke mailegua barneratu artean gertatzen den bilakaera (*transference*) eta azken emaitza (*transfer*). Izan ere, hizkuntza batetik bestera iragate horretan kate maila bat baino gehiago dago; esate baterako, ez da beti gardena maileguren eta hizkuntza-lerratzeen (*code-switching*) arteko muga.<sup>4</sup> Testuan, adibidez, badira euskaraz hasi eta frantsesez bukatzen diren errezeta-izen batzuk (ad. arraolcé à la Tripe 130,<sup>5</sup> jambou à l’oseille 136), eta badira erabat frantsesez idatzi zituen beste errezeta-izen batzuk: *oeufs à la tripe* 136, *chou farsi* 136, *gigot à l’eau* 112, 136 (baina *gigota* 112, 113, *gigot erretiq* 121), *oeufs au vin doux* 132, *pain au lait* 119, 136...

Horiek euskarara aldatzeko zailtasunak eraginda hartuko zuen, seguru ere, frantsesez uzteko erabakia. 1864an idatzitako beste sukalde-liburu batean ere —*Escualdun cocinera, ceinarekin normahic cocina ona errechki eguin baiteçake*<sup>6</sup>— agertzen da zailtasun hori, eta, areago, egileak berariaz ohartarazten du irakurlea, liburua-aren hasieran datorren “abisua” delakoan (1. or.): “Liburu huntan hanitz gauça frances guisa icendatuac içanen dire, ezdaquiulacotz escuaraz icenac”. Luzeagoa da liburu horretan honelakoen zerrenda: *çopa à l’Italienne*, *çopa à la Condé*, *yigota à la braise* edo ilharrekin, *jambon glacé*, *oilasco à la Crapaudine*, *macallaua au Gratin*, *aça à l’Anglaise*, *arroltce farcituac à l’Espagnole*, *crema au Caramel*, *tarta à la Compote*, *ophilac à la gelée de Groseille*...

<sup>3</sup> Euskarak latinari arrazoi berberagatik zor dizkion mailegu lexikoez mintzo da Etchebarne (2006: 12). Gai honetaz, ik. Mitxelena (1995).

<sup>4</sup> Bereziki emankorra izan zen 90eko hamarkada bien arteko aldeaz idatzi diren lanetan, eztabaida handiko garai horretan ikertzaileek terminologia zehazteko eta bateratzeko premia ikusi zutelako (Treffers-Daller 2009: 66).

<sup>5</sup> Testuaren lehen orriak 108 zenbakia darama, eta 136 azkenak. Hemen eskuizkribuko orrialde zenbakiak erabiliko ditut, faksimile edizioari jarraituz (Epelde, inprim.).

<sup>6</sup> Liburuaren azalak honako erreferentzia hau dakar, tituluaren azpian: «Salcen da Bayonan, Cluzeau liburu eta paper marchantaren baithan Cilharguin carrican, 12 numeroan. 1864». Uste dugu garai beretsukoak izan daitezkeela bi liburua.

Gainerako elikagai-izen eta errezeta-izenburu guztiak euskaratu zituen, oro har frantses eta gaskoi jatorriko mailegu lexikoak ausarki sartuz. Horiek banaka zenbaitzean 118 item atera zaizkigu:

- Abondantqui 108, 125  
 Amanda 115, 129  
 Arraspatu 112, 119, 126 eta  
   sucré arraspa 115  
 Arrengatu 113  
 Articulo 110  
 Assaisounatu 110, 128 eta as-  
   saisonnatu 114, 125  
 Attensione 109, 110, 121, 123  
 Aygardent 111  
 Banil 117  
 Billa (bi billa chocolat) 117  
 Bletarraba 122  
 Bola 113  
 Bouchi 116, 120, 131 eta  
   bouchinca 112  
 Bouteilla 117, 123  
 Briocha 119, 120  
 Burra 116, 129, 117, 120,  
   129  
 Cabillou 116, 119  
 Canéla 116, 119, canella  
   122, 123, 134  
 Cantitate (cantitativa) 120  
 Cantou 115, 134  
 Caosséraq 119  
 Carrota 108, 113, 124, 125,  
   128  
 Casserola 108, 109, 110,  
   111, 112, 113 eta cassé-  
   rola 114, 116, 117, 118,  
   119, 121, 123, 124, 125,  
   126, 128, 129, 132, 133  
 Cayen (sic) 108, cayer 108,  
   135  
 Chalota 131  
 Charlotta 116  
 Charpoyl 120, charpoil 108,  
   122, 124  
 Chipa 132  
 Citron 134 eta çitrou 129  
 Compota 125  
 Créma 123, 124, 136  
 Crema(tu) 109  
 Cueillera 131, cuillerata 109,  
   111, 112, 128, 130, 132  
 Different 126  
 Disposatu 115  
 Dominant 120  
 Ençalada 120  
 Entrada 110, 111, 126  
 Expériencia 124  
 Farsitu 113, 124, 130 eta far-  
   sidura 124, 125, 126, 131  
 Fayçou 126  
 Filet 124  
 Finiment 108  
 Finitu 123  
 Fiscéla 124  
 Foilla 108  
 Forchéta 111, 112  
 Forma 117  
 Fournéu 109, 110, 111, 118,  
   123, 133  
 Fresq 111  
 Frétatu 129 eta frotatu 129,  
   130  
 Fricando 111  
 Fricassey 121  
 Frigitu 112, 113, 116, 119,  
   130, 131, 132  
 Garnitu 108, 117, 124, 133  
 Glaça 111 eta glaçatu 114  
 Gobeléta 116, 131, gobe-  
   tata 111, 125, 131  
 Goustu 126  
 Grillatu 125  
 Hachatu 112, 120, 121, 125,  
   128, 130, 131  
 Imaginatu 123  
 Imour 121  
 Irangea 117, 123  
 Jambon 112 eta jambou 114,  
   115, 120, 125, 126, 127  
 Jus 108, 113, 122, 124, 127,  
   juz 109, 110, 114, 115  
 Khambiatu 110, 129  
 Khanatu 124  
 Labela 131  
 Libera 110, 115, 116, 129  
 Limou 115, 122, 125, 131,  
   132  
 Manéra 114, maneria 124,  
   manérias 'ganoraz' 113  
 Marinada 111, 119  
 Marmelada 116, 117  
 Mineta 126, minéta 127  
 Minuta 123, 134  
 Mouchérou 109  
 Mouléta 133  
 Moyéna 110  
 Muscada 122, 126, 133  
 Nombre 108  
 Numéro 108  
 Objet 108  
 Ordenatu 110  
 Quinhou 108, 126 ouynhou  
   112, 124, 128, 130, 132,  
   ouinhu 125  
 Paja 108  
 Pala 127  
 Passouer 109, 119, 124, 125,  
   127, 131  
 Pénible 123  
 Persil 108, péresil 120, pere-  
   sil 122, pérésil 124, 131,  
   132  
 Pessa 110, 128  
 Pijou 128, 129  
 Pilatu 115  
 Piloir 115  
 Pintou 134  
 Plat 108, 111, 116, 118, 121,  
   124, 128, 130, 133, 134  
 Poularda 126  
 Précautione 109  
 Préparatu 119, 127  
 Purificatu 123  
 Quart 112, 117, 118, 120,  
   122, 123  
 Raspatu 122, 126, 131, 132  
 Scéléri 108  
 Séparatu 118  
 Serbieta 113, 115, 118, 122,  
   123, 134  
 Serbutchatu 110, 111, 112,  
   113, 114, 115, 118, 119,  
   121, 122, 124, 125, 126,  
   128, 129, 131, 134  
 Siéta 108, 113, 130  
 Sopa 128

Sucre 112, 115, 116, sucré	Tendre 120	Trancha 108, 112, 113, 128,
117, 118, 119, 123, 126,	Terrina 122, 123	133
128, 129, 130, 132, 133,	Thassa 119	Trempa (trempa) 109, 126
134, soucré 118, 122, su-	Torchou 114, 115	eta trempatu 112, 114,
cria 123, 129	Tourtiéra 116	115, 119, 122
Tabla 108	Traductora 124	Trossatu 114

Zerrendan gehienak substantiboak dira, eta horietatik ia denak elikagai edo sukaldeko ontzi izenak. Kontuan izanik liburuxkaren izaera teknikoa, itzultzaileak aldiandian beharrezko zituen hitz teknikoen bilduma inguruko erdaretatik edanez osatu zuen. Bigarren atalean ikusiko dugunez, gaskoi jatorrikoak dira mailegu horietako asko. 2006ko lan batean, zubererak Bearnoko gaskoi okzitanierari mailegatu dizkion hitzen zerrenda oparao aurkeztu zuen Jean-Baptiste Coyos-ek, eremu semantikoka antolatuta. Gaskoiak sentimenduen, kalifikatzaileen, ekintza-izen eta aditzen eta eguneroko tresna eta gauzen eremuei hitz asko eman dizkiela erakusten dute multzo horietan bildu zituen mailegu ugariak. Ordea, mailegutza ahulagoa bide da, esate baterako, familiaren, erlijioaren, denboraren eta espazioaren eremuetan (2006: 212-213 eta 216).

## 2. Maileguen egokitzapen fonologikoaz

Atal honetan alfabetoko hurrenkeraren arabera antolatu ditugu eskuizkribuan agertzen diren mailegu lexikoak, eta erregela fonologikoei erraparatu diegu, euskarak horiek bereganatzeko zein bitarteko erabili dituen erakutsi nahian. Hona, beraz, gertakari nagusien aurkezpena:

ABONDANTQUI 108, 125

Frantseseko *abondement* ‘ausarki, nasaiki’ aditzondoaren ordaina da. Ahoz nekez erabiliko zuten ziur aski garaiko euskaldunek, zeren euskarazko kide arruntak ditu zuberotarrez, eta esate baterako Lhanderen hiztegia ez dator.<sup>7</sup>

Egokitzapen fonologikoaren aldetik, fr. *o* > eusk. *u* (eskuizkribuan *ou* grafia-ekin) oso arunta izan da zubereraren historian kontsonante sudurkari aurreko inguruneetan (Gavel 1969 [1920]: 26), baina ez da zubereraz bakarrik gertatu (Mixelena 1990: 55): “No son exclusivamente suletinos, (...) sino también bajonavarros y labortanos, los ejemplos de *u* frente a guip. vizc. *o*. En líneas generales, se diría que el límite coincide con la frontera franco-española”. Bestalde, Haasek dio (1990: 407) gaskoi fonologiari dagokiola bilakaera hau, “gaskoinean *o* hertsu eta *o* azentugabeak *u* itzuli zirelako”. Horren gertakari indartsua izan da, euskarazko hitzetan ere bete baita:

Orozgainetik, elebitasuna ahultzen denean, gure kasuan gaskoia gal-tzen denean, periferiako fonologiaren parte bat erdiguneko senditzen ahal da. Horregatik hizlariak sendimendua badute, *muntatü* edo *kuntatü* hitzetan *u* fonema *o* baino euskarago dela. Azkenean erdal hitzen fonologiak

<sup>7</sup> Batzuetan euskal eratorbidea erabiltzen zuten itzultzaileek erdal hitzak euskaratzeko baliabide gisa, nahiz sortzen zuten forma berriak ahoz tradizioz ez izan. Hain zuzen atzizki hau bera honela erabili izan zuen Leizarragak. Adibidez, *Heuskaldunei* ataleko *-ki-dun* formak hartzen baditugu: *klaroki*, *espezialki*, *expresuki*, *disolutoki*, *signalatuki*, *eternalki*, *dilijentki* eta abar. Beñat Oyharçabali zor diot ohar hau.

“egiazko” euskal hitzak lotzen ditu, horrengatik Iparraldeko euskalki batzutan *untxa* (edo *untsa*), *hun*, edo *zumbait* bezalako formak baditugu, horrengatik ere biarnes-eko fonologia azkarra da zuberotarrez eta *ü* fonemaren erabilera oso zabala da Amikuzeko euskalkiaren parte batetan (Haase 1990: 409).

## AMANDA

amandasco 115, 129, amandaq 129

Frantsesezko *amande* ‘arbendola’ izenaren ordaina da. Gèze eta Lhanderen hiztegieta agertzen da (Lhanderenean *amanda* nahiz *arbendol* sarrerak azaltzen dira). Forma hau erabiltzen da gaur egun Iparraldean. Idatzizko lekukotasuna denez, ez dago jakiterik bigarren silabako *-an-* bilkura [á] ahoskatuko ote zuten, gaur egun mailegu berrietan maiz gertatzen den bezala (Jauregi & Epelde 2008).

## ARRASPATU

arraspatuco doçu 112, 119, 126, sucré arraspez 115

Lhanderen hiztegieta badatoz, bai izena eta bai aditza (‘birrindu’). Latinezko *raspa* bide da jatorrizko forma (Bloch eta Von Wartburg 1996: 533), baina euskarak bere-berea eta aspaldikoa du *r-* ingurunean bokal protesia eransteko erregela fonologikoa, euskalki guztiek batera dutena.<sup>8</sup>

Dena dela, liburuxka honen itzultzaileak hitz hasierako bokal protesirik gabeko forma ere badarabil hiruzpalau pasartetan (ik. *raspatu* sarrera). Hori da gaurko joera nagusia, mailegu berri guztiz gehienetan (protesirik gabeko gaur egungo adibide gehiago Epelde 2004 lanean, 64-65. or.). Gaia sakonago aztertu dutenek diote erregela honek fonologikoki emankorra izateari utzi diola (Haase 1992: 36, Trask 1997: 146). Palay-ren hiztegieta ere bi formak azaltzen dira: *arraspà* eta *raspà*. Pentsatzekoa da gaskoiari zor diola mailegu hau euskarak, frantsesez *râper* baita.

## ARRENGEATU

arrengaturiq 113

Gaur egun erabiltzen da *arranjatu* aditza ‘konpondu, antolatu’ (*OEH*-n<sup>9</sup> *arranjatu*, *arrañatu*, *arrenjatu*, *erreniatu*), baita honetatik eratorritako izenak ere (*arranjamendu*, *arrenjamendu* eta abar). Gaskoieraz *arranjà* da Palayren arabera. Arestian azaldu dugun *r-* inguruneke bokal protesiarene beste adibide bat litzateke honako hau (frantsesez *arranger* da, baina *ranger* dokumentatuta dago hamabigarren mendetik; ik. Bloch eta Von Wartburg 1996, *rang* sarrera).

Hitz barruko kontsonante sudurkari ondoko *g-*ren ahoskerari dagokionez, ez daukagu jakiterik gaur egun bezala [ʒ] ahoskatuko zuten edo sabaiaurreko frikari ahostuna, hots, [ʒ]. Ik. *objet* sarrera.

## ARTICULU

articulu hountan 110

Latineko *articulus*-etik heldu bide zaigun mailegu zaharra.

<sup>8</sup> Garai bateko euskararen fonotaktikak ez zuen onartzen hitzak dardarkariz hastea (Mitzelena 1990: 155): «No hay palabras antiguas con *r* inicial: en préstamos *r-*, pronunciada siempre fuerte, va precedida de una vocal protética».

<sup>9</sup> Mitxelena, Koldo & Ibon Sarasola. 1989-2005. *Diccionario General Vasco. Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia. (Aurrerantzean *OEH*).

ASSAISOUNATU<sup>10</sup>

assaisouna éçaçu 110, assaisonnaturiq 114, assaisonnatuco duçu 125, assaiso-natuco duçu 128

Euskarak aditzak beretzeko baliabide bizi-bizia du *-tu* atzizkiaren bitartez, guztiz emankorra gaur egun ere. Hau da adibide bat, nahiz euskara mintzatuan ez dudan entzun (alde horretatik aditzondoetako *-ki*-ren tankerakoa izan daitekeelakoan nago; ik. *aboundantqui* sarrera). Frantsesez *assaisonner* da ‘gatzpipertu’, hogeita hirugarren errezetan itzultzaileak berak azaltzen duen bezala (128. or.): “Éçarçu behar den hora araguiaren estalçéco, assaisonnatuco duçu sopa beçala, gaz eta piper appur éçarten duçulariq”.

## ATTENSIONE

attensione 109, 110, attensionea 121, 123

Iparralde guztian bezala, erdal *-(t)ione-k -zione* eman du itzultzailearen hizke-ran. *Précautionia* (109) ere bide beretik eratutakoa da. Ikusten denez, hitz bukae-rako erdiko bokalak mugatzailea hartzen dueneko hiatus inguruneetan ez du beti berdin jokatzten: *attensionea vs précautionia*.

## AYGARDENT

aygardent amignibat<sup>11</sup> 111

Gaurko zubereraz ere erabiltzen da edari-izen hau ‘pattarra, edari txuria’. Gas-koian du jatorria: *aigardént* ‘eau de vie’ (Coyos 2006: 212).

## BANIL

banil amignibat 117

Frantsesezko ezpainhorzkari ahostuna ahoskabetzea (*v > b*) egokitzapen fonolo-giko arrunta izan da Iparraldean berriki arte, hots hori ez baitzen hiztun tradi-zionalen fonologia-sisteman. Fr. *vanille* > eusk. *banil* ‘banilla’ da horren adibide bat. Pentsatzen dut bilakaera hau —gorago hitz hasierako dardarkarien bokal protesiaz esan bezala— jadanik ez dela horren emankorra gaur egungo hiztun gazteen ezpainenetan, eta mailegu berrietan ahostuna gordetzen dutela maiz, jatorri hizkun-zan bezala (Epelde 2008).

## BILLA

bi billa chocolat 117

Frantsesezko *bille* [bij] ‘bola txikia’ hitzaren mailegu egokitua, batetik, bokal-arteko sabaiko albokariari dagokionez (ez baita desabaikaritu),<sup>12</sup> eta bestetik hitz bukaerako *-a-ri* dagokionez (frantsesez *-e* mutuz bukatzen diren hitzetan ohikoa da euskaraz *-a* eranstea; ik. 3. atala).

## BLETARRABA 122

Frantsesezko *beterrave* (< lat. *beta*) ‘erremolatxa’ hitzaren ordaina da. *Beterrau* zein *beterraba* formetan gutxienez bizi da gaur egungo Iparraldeko hizkera ba-ztuetan (Epelde 2004: 74; *OEH*: *betarraba, betarraga, beterraba*).

<sup>10</sup> Bokal bilkuretan frantsesezko grafiari eusten dio: *ai > e* eta *ou > u*.

<sup>11</sup> *Bat* zenbatzailea gehienetan izenari lotua idazten du. Deklinabide hondarkiak, aldiz, bereiz jar-tzen ditu askotan: *cassérolabat étan* (114). Beste batzuetan bi eratara idazten du: *passouer batetan* (109, 119, 124) baina horren ondoan *passouer bat étan* (125, 131).

<sup>12</sup> Honetaz ez daukagu ziur egoterik, berriz ere, testuaren izaera idatziagatik.

Lehen silabako albokaria latineko *blitum*-etik bide dator (Bloch eta Von Wartburg 1996: 69), eta *blatte* forman hamaseigarren mendetik dokumentatuta dago frantsesez.

#### BOLA

bolabat 113

Frantsesezko *boule* 'bola' hitzaren ordaina da. Egokitzapenaren aldetik nabarmentzekoa da lehen silabako *u > o* (*bouteilla* hitzean ez bezala) eta frantsesez *-e* mutuz bukatzen diren hitzetako bukaerako *-a* (ik. 3. atala).

#### BOUCHI

bouchi çoumbayt 112, bouchincaq 112, bouchibat 116, 120, 131

Gaur egun erabiltzen da zubereraz *buxi* 'zattia', baita honen eratorriak ere (*buxiñi* eta abar).<sup>13</sup> Testuan hitz elkarketan azaltzen da beti: *ourdaqui bouchi çoumbayt* (112), *çagar bouchincaq* (112), *canéla bouchibat* (116), *jambou bouchibat* (120), *ogui bouchibat* (131). Lhanderen arabera (ik. *boxi* eta *buxi* sarrerak) 'petit morceau' adierazten du, eta bearnesean du jatorria (bear. *bouci*). Hala dirudi: Palayk ere badakar, *bouci* forman, 'morceau, petit bout; bouchée'. *Buxibat* aldaera elkartuak (gaurko *poxi bat*) 'pixka bat' esan nahi du; hala, *canéla bouchibat* 'kanela pixka bat'. *Buxinka*-k, berriz, 'zati txikia' adierazten du; horrenbestez, "trempatuco dutuçu bédéraca orhen barnen çagar bouchincaq" dioelarik (112), 'trenpatuko dituzu banaka orearen barnean sagar puska txikiak' adierazten du.

#### BOUTEILLA

bouteillabat esné 117, bouteille erdibat hour 123

Frantsesezko *bouteille* [butɛj] 'botila' hitzaren ordaina da. Aurreko hitzean bezala, *ou* grafiak *u* adierazten du (Lhanderen hiztegian *butila* azaltzen da zubererarako). Ez dakit *ill-* bilkuran agertzen den palatalizazioa ebakiko zen edo ez; hain zuzen mailegu honetan despalatalizatu egin da Iparraldeko hizkera askotan (Gavel 1969 [1920]: 484).

Hitz bukaerako *-a*-ri dagokionez, bi adibideetan argi gelditzen da itzultzailearentzat mugagabeko forma *-a*-duna zela (ik. 3. atala).

#### BRIOCHA

briochabat 119, çoure briocha 120

Frantsesezko *brioche* hitzaren ordaina da. Nabarmentzekoa da hitz bukaerako *-a* itsatsia lehen adibidean (ik. 3. atala) eta txistukaria sabaiaurreko frikaria ebakitzea (afrikatu gabe), frantsesez bezala: [brjoʃ].

#### BURRA

burrax 116, 129, burra hortan 117, burré, burrés 120, 129

Frantsesezko *beurre* [bœʁ] hitzaren ordaina da. Euskara tradizionalen ez zegoenez [œ]-rik, zubererak [y] bilakatu du hots hori,<sup>14</sup> ad.: *traktiür* (Peillen 1998: 38). Halere, *banil* hitzean azaldu dugun aldaketan bezalatsu, badirudi hitzun gaztegoen euskararen bilakaera hori ez dela horren emankorra (Epelde 2008). Ondorioz, sarritan frantsesezko [œ]-dun mailegu berriak bere horretan ahoskatzen dira (bilakaera berri hauek sor ditzaketen eragileez, ik. Oñederra 2009).

<sup>13</sup> Jean-Baptiste Coyosi eskertu nahi diot zubereraren gainean emandako informazio lagungarria.

<sup>14</sup> Eskuizkribuan *u* [y]-ri dagokio eta *ou* [u]-ri.



Kontsonante dardarkariari dagokionez, ez daukagu jakiteko modurik ubularra (gaur erabat nagusitu den ebakera) ahoskatuko zuen edo ez, testuaren izaera idatziazatik.

#### CABILLOU 116, 119

Gaskoiari mailegatu bide dio zubererak hitz hau: Palay-k *cabilhòt, -lhoù* “chevillon, petit bout de bois” (‘ziri txikia’) dakar, eskuizkribukoaren antzeko forma. Lhandek *cabillü* sarrera dauka zubererarako, hiru adiera hauekin: ‘1. chevillon. 2. bouchon. 3. bonde’. Bloch eta Von Wartburg-en etimologia hiztegia *cheville* hitzarekin lotzen da antzinako probentzaleko *cavilba* (1996: 128). Peillenek, berriz, *khabéilla* ‘xiria’ aipatzen du zubererarako (1998: 89).

Bestalde, erdal *-on* bilakatzearen ondoriozko *-u* sudurkaritua oso berea du zubererak hitz bukaeran (Mitxelena 1990: 137-153): *arrazû* ‘arrazoia’, *arrathû* ‘arratoia’... Ik. *cantou, citron, fayçou, jambon, limou, ouinhou, pijou* eta *torchou* sarrerak.<sup>15</sup>

#### CANÉLA

canéla 116, 119, canella 122, 123, 134

Frantsesezko *cannelle* ‘kanela’ hitzaren ordaina da (ik. 3. atala).

#### CANTITATE

cantitatie 120

Hitz bukaerako erdiko bokala ez da beti ixten mugatzailea hartzen dueneko hiatus inguruneetan (ik. *attensione* sarrera), baina kasu honetan disimilazioaz dator: “béna manériaz belhar hounen cantitatie”.

#### CANTOU

cantouréquin 115, 134

*Kantoi* hitzaren zubererazko ordaina da. Lhanderen hiztegia hiru forma bilzen dira (*kantu, kantoi* eta *kantoin*) eta lau adiera: ‘1. coin, angle. 2. pierre de taille. 3. tranche, bord, fil d’un instrument tranchant. 4. morceau. *Ogi kantoin, morceau de pain*’. Erdal *-on* > zub. *-u* sudurkaritua bilakaeraren adibide bat da. Gaskoieran bide du jatorria (Palay-k *cantoû* jasotzen du).

#### CAOSSÉRA

caosséraq 119

Gaur egun *kausera* erabiltzen da Lapurdiko partean (‘gari irin, arrautza, esne eta azukrez egindako oreka koipetan frijituz egiten den opil modukoa’). Lhanderen hiztegia *kausera* eta *kauxera* sarrerak jasotzen dira (bearn. *caucère*), eta Larrasquetenean *kausera* (1939: 156). Eskuizkribuan hitzez hitz dio “ogui bihotz horiq frigi assico tutçu caosséraq béçala”, ‘ogui bihotz horiek frijiazaraziko dituzu kauserak bezala’.

#### CARROTA 108, 113, 124, 125, 128

Frantsesezko *carotte* ‘azenarioa’ hitzaren ordaina da (ik. 3. atala).

#### CASSEROLA

casserolabaten 108, 109, 110, 111, 112, 113, cassérolabat étan 114, 116, 123, 124, 125, 126, 128, 129, cassérola horren barnia 117, cassérola batétan 117, 118, 119, 121, cassérolan barnen 125, cassérola 129, 132, 133

<sup>15</sup> Itzultzaileak ez zuen sudurkaritzea dieresiaz markatzen, baina, Mitxelenaren adibideen haritik, pentsatzekoa da ebakera hori izango zela.

Frantsesezko *casserole* ‘kazola’ hitzaren ordaina da (ik. 3. atala). Hitz arrunta da sukaldeko ontzia izendatzeko. Aranartek eta Lafittek ere jasotzen dute<sup>16</sup> (35. or.).

## CAYER

cayen (*sic*) hounen 108, cayer hountaco 135

Frantsesezko *cabier* hitzaren ordaina da (ik. 3. atala). Lehenbiziko aldian agertzen den *cayen* formak hutsa behar du (*cayer* behar du).

## CHALOTA 131

Frantsesezko *échalotte* ‘tipulatxa’ hitzaren ordaina da (ik. 3. atala). Nabarmen-tzekoa da sinkopa eta hitz hasierako txistukariaren ahoskera afrikaziorik gabea, ja-torri hizkuntzan bezala (afrikatua *tch* idazten du).

## CHARLOTTA

charlottabat 116

Frantsesezko *charlotte* ‘azkenburuko mota’ hitzaren ordaina da (ik. 3. atala). Berriz ere aipatzekoa da hitz hasierako txistukariaren ahoskera afrikaziorik gabea.

## CHARPOYL

charpoyl 120, charpoil 108, 122, 124

Gaskoierazko *charpot* ‘belar mota’ (fr. *thym*) hitzetik eratorritako forma (Coyos 2001: 411). Hitz hasierako txistukari frikaria gordetzen da honetan ere.

## CHIPA 132

Gaskoierazko *chipe* ‘zarboa (arrain mota)’ hitzaren ordaina da. Hitz hasierako txistukaria afrikaziorik gabea da testuan, baina gaur egun afrikatua ebakitzen da [tʃipa] (Coyos 2001: 411). Hitz bukaerako *-a-z*, ik. 3. atala.

## CITRON

citron 134 eta çitroubat 129

Frantsesezko *citron* ‘limoia’ hitzaren ordaina da. Zenbait mailegutan (ik. *cabillou* sarrera) azaltzen da erdal *-on* > zub. *-u*, *-ü* (sudurkaritua, ziurrenik, nahiz testuan tremarik gabe agertzen den). Chahok eta Gèzek ere *zitru* dakarte (Chahok *zitruñ* ere bai). Batzuetan, ordea, bitasuna ikusten da, ad. *citron* & *çitrou*, *jambon* & *jambou*. Ik. *limou* sarrera.

## COMPOTA

compotabat 125

Frantsesezko *compote* ‘konpota’ hitzaren ordaina da (ik. 3. atala).

## CRÉMA 123, 124, 136

Frantsesezko *crème* ‘krema’ hitzaren ordaina da (ik. 3. atala).

## CREMATU 109

Frantsesezko *crémer* ‘kiskali’ aditzaren ordaina da. Testuan hitzez hitz dio: “eçarçu guisa hortan houriq gabé, fournéu ahalbéçayn bero batetan, cassérola hori.”<sup>17</sup>

<sup>16</sup> Tournier-Lafitteren *Lexique Français-Basque* (1954) hiztegiaren bertsio laburtu modukoa da Aranart eta Lafitterena. Hitz erabilienak bakarrik sartu zituztela diote egileek sarrerako ohar batean (ohiko eremu semantikoan arabera antolatuta).

<sup>17</sup> Puntuaren ondok askotan ez du letra larririk erabiltzen.

attensione casserola eztadin crema”, ‘ezar ezazu gisa horretan, urik gabe, su ahal bezain bero batean kazola hori. Kontuz kazola ez dadin erre’.

#### CUILLERA

cuilleratabat hour 109, 111, 112, 128, 132, cueillerata 130, 132, cueillerabat 131

Frantsesezko *cuiller* hitzaren ordaina da (ik. 3. atala). Aranart-Lafitteren hiztegian *kuillera* dator; Peillenek, berriz, *kuilléa* jasotzen du. Adibide guztietan, azkenekoan izan ezik, forma eratorria azaltzen da: *kuillera* + *-ta* (< *-tara*) ‘koilarakada’. Ik. *gobeleta* sarrera.

#### DIFFERENT

different bat 126

Frantsesezko *différent* izenondoaren ordaina da. Aspaldiko mailegua behar du; idazkerari erreparatzen badiogu, behintzat, pentsa genezake azken silabako *-enbilkura* ez zuela frantsesez bezala [á] ahoskatzen. Badirudi Iparraldean dokumentatzen dela bukaerako *-e* gabeko forma (OEH).

#### DISPOSATU

disposatuco 115

Frantsesezko *disposer* ‘ezarri’ aditzaren ordaina da. Testuan zehar gehienetan euskarazko ordaina (*eçarri*) erabiltzen du; horregatik pentsatzen dut itzulpenaren efektua izan daitekeela aukera hau (ik. *aboundantqui*).

#### DOMINANT 120

Frantsesezko *dominant* ‘nagusi’ hitzaren ordaina da. Behin bakarrik azaltzen da testuan.

#### ENÇALADA 120

Lhanderen hiztegian *entsalada* azaltzen da, gaur egungo forma (< fr. *en salade*). Euskarak osoki beretu du kontsonante sudurkarien ondoko txistukarien afrikazioa, eskuizkribuan (eta inguruko erdaretan) gertatzen ez dena (ad. *pentsatu*, *kontserba*...; gai honetaz sakonago, ik. Jauregi & Oñederra 2007). Egiazki testuan *ençalada chouri* hitz elkartua agertzen da, Lhandek ‘laitue cultivée’ aldatzen duena frantsesera. Ik. *expériencia* sarrera.

#### ENTRADA

entrada 110, 111, entradan 126

Gaskoierazko *entrade* izenaren ordaina da, Palay-ren arabera ‘plat de viande avec de la sauce’ (ik. 3. atala).

#### EXPÉRIENCIA 124

Frantsesezko *expérience* hitzaren ordaina da. Egokitzapenei dagokienez, aipatzeko moduko bi puntu daude: bata, egokitzapen fonologikorik eza erakusten duena, *-xp-* kontsonante multzoa gordetzea. Bestea, azken-aurreko silabako kontsonante sudurkariaren ondoko txistukariari dagokiona: frikaria da, orri berean agertzen den *francia* hitzean bezala (vs. *chercaçia*). Ik. *ençalada* sarrera.

#### FARSITU

farsitu (assa farsitu) 113, farsitceco 124, farsidura 124, 125, 126, 131, farsituriq 130.

Frantsesezko *farcir* ‘bete’ aditzaren eratorriak dira. Gaur egun ere erabiltzen da (OEH-n *fartzitu*).

## FAYÇOU

fayçouan (ber fayçouan ‘era, gisa berean’) 126

Frantsesezko *façon* ‘modua, molde’ izenaren ordaina da. Lhanderen hiztegiari *fazoin* jasotzen da (gaur egungo forma). Testuan azaltzen den aldaera zubereraz ohikoa den *-on* > *-u*, *-ü* (sudurkaritua) bilakaeraduna da (ik. *cabillou* sarrera).

## FILET

filetaren 124, filet hori 124, filet horren gagnia 124

Frantsesezko *filet* ‘azpizuna’ izenaren ordaina da (ik. 3. atala).

## FINIMENT

finimentian 108

*Finiment* eta *finimentu* aldaerak dituen zubererazko hitza ‘bukaera, azkena’. Chahok jasotzen du. Aurkitu dudak hurbileneko forma *femimén* ‘achèvement, fin’ da, gaskoi hizkuntzakoa (Palay-k jasotzen du). Nabarmenezkoa azken silaba frantsesaren fonologiaren arabera [ã] bilakatu ez izana.

## FINITURIQ 123

Frantsesezko *finir* aditzaren ordaina da.

## FISCÉLA

fiscélabatez, fiscéla 124

Frantsesezko *ficelle* ‘listaria’ hitzaren ordaina da (ik. 3. atala).

## FOILLA

paper foilla 108

Frantsesezko *feuille* ‘orria’ [føj] hitzaren ordaina da. Hitzez hitz dio “behi aspiquei trancha çoumbayt paper foilla beçain mehé piquéçacu”, ‘behi aspiki xerra zenbait paper orria bezain mehe ebaki ezazu’. Lhanderen hiztegiari *fula* aldaera dator ‘feuille de papier’. Ik. *burra*.

## FORCHETA

forchétaquin (bi forchétaquin) 111, forchetabat équin 112

Frantsesezko *fourchette* ‘sardexka’ hitzaren ordaina da (ik. 3. atala). Lehen silabako *o* bokalari dagokionez, Aranartek eta Lafittek ere *forcheta* aldaera dakarte.

## FORMA

forman 117

Behin bakarrik azaltzen da mailegu zahar hau testu osoan: “Çutiq idoquico duçu gasna holandaco baten forman” dio hitzez hitz.

## FOURNÉU

fournéu 109, furneuin 110, fourneuin 111, 123, 133, fourneuen gagnen 118

Frantsesez *fourneau* ‘egur ikatzeko sua eta labea’ da baina hitz azkeneko bokal bilkurak pentsarazten digu gaskoieratik mailegatutako forma dela (gask. *fournèu*, Palay).

## FRESQ

gobeletatabat hour fresq 111

Gaskoierazko *frésc* ‘fresko’ izenondoaren ordaina da (fr. *frais*).

## FRÉTATU

Frétatu 129 eta frotatuco 129, frota içeçu 130

Lehenik azaltzen den *e-dun* aldaera gaskoierazko *fretà* ‘igurtzi’ aditzaren ordaina bide da (fr. *frotter*).

## FRICANDO

fricandenetiç 111, fricandoaren 111

Frantsesezko *fricandeau* ‘frikandoa, gisatu mota’ hitzaren ordaina da (esp. *fricandó*).

## FRICASSEY

oillasco fricasseyaren salça 121

Gaskoierazko *fricassèje* ‘frikandoa’ hitzaren ordaina da (fr. *fricassée*).

## FRIGITU

frigi assicotuç 112, 119, 132, frigitu 113, 131, frigi assi duçunian 130, 131, frigi errassico 116, frigituriç 132

Lhanderen hiztegian *frijitu* eta *frikitu* aldaerak jasotzen dira. Larrasquetek, berriz, bearsenetik mailegatutako aditza dela dio (*friji* eta *frijit* aldaerak ematen ditu). Pentsa liteke bokalarreko *-g-* honen ebakera sabaiaurreko frikari ahostuna izan zitekeela, maileguetan bakarrik erabiltzen dena.

## GARNITU

garnituc duçu 108, 117, 124, garnituriç 133

Frantsesezko *garnir* ‘hornitu, bete’ aditzaren ordaina da.

## GLAÇA

glaça 111, glaçatcéco 114

Frantsesezko *glace* izenaren eta *glacer* ‘azukreztatu’ aditzaren ordainak dira (ik. 3. atala).

## GOBELETA

gobelatatabat 111, 125, 131, gobelétabat 116, gobeleta 131

Frantsesezko *gobelet* [goble] ‘edalontzia’ hitzaren ordaina da (ik. 3. atala eta *cuillera* sarrera). Lhanderen hiztegian *gobelet* eta *godalet* aldaerak datoz. Bigarren hau jasotzen dute Aranartek eta Lafittek ere: ‘*verre*’ (35. or.).

## GOUSTU 126

Latineko *gustum*-etik bide datorren mailegu zaharra da. Lhanderen hiztegian *gustu* nahiz *gostu* agertzen dira (azken hau da gaur egun nagusitu den forma).

## GRILLATU

grilla assi 125

Frantsesezko *griller* ‘erre’ aditzaren forma arazlea da: *grillarazi* (ik. *bouteilla* sarrera).

## HACHATU

hachatuco duçu 112, 120, 121, 130, ouñça hachaturiq 125, 128, 131

Frantsesezko *hacher* [‘aʃe] ‘xehatu’ aditzaren ordaina da.

## IMAGINATU

imaginatcen 123

Lhanderen hiztegian *imaxinatu* jasotzen da. Hirugarren silabako kontsonantea sabaiaurreko frikari ahostuna ebakitzen da gaur egun. Idazterakoan *-gi-*ren aldeko hautua egun izanak pentsarazten digu itzultzailearentzat ere hala zela.

## IMOUR

imourra 121

Lhanderen hiztegian *imur* eta *imore* aldaerak datoz (fr. *humeur*). Hiztegieta aurkitu ez dudan adiera berezi bat du testuan: *süaren imurra*, hitzez hitz *çuyaren imourra* 'suaren berotasuna'.

## IRANGEA

irangea lili amignibat 117, 123

Gaskoierazko *irànje* 'laranja' hitzaren ordaina bide da (Palay). Kontsonante sudurkariaren ondoko herskaria sabaiko ahostuna ebakitzen da gaur egun (*li-ranja*). *-Ng-* kontsonante bilkurarekin hori adierazi nahiko zuen, segur aski, itzul-tzaileak.

## JAMBON

jambon 112 baina jamboubaten 114, jambou 114, 120, 125, 126, çouré jamboua 115, 127

Fr. *jambon* 'urdaiazpikoa' hitzaren ordaina da. Zubererazko *-on* > *-u*, *-ü* bilakaera emankorraren adibide ona da, nahiz hitz honi dagokionez ez izan sistematikoa. Ik. *citron*.

## JUS

jusa 108, 113, bi cuillerata juz 109, 110, 114, 115, jusian 122, 124, 127

Gaskoierazko *jus* 'zukua' hitzaren ordaina bide da (frantsesez [ʒy]). Hitz hasierako herskaria sabaiko ahostuna ebakitzen da gaur egun.

## KHAMBIATU

khambiatuco duçu 110, khambiatcia gatiq 129

Gaskoierazko *cambià* 'aldatu' aditzaren ordaina bide da (fr. *changer*). Hitz hasierako herskari hasperendunak ohikoak dira testuan zehar.

## KHANATU

khanatuco duçu 124

Lhanderen hiztegian *khanatü* jasotzen da 'bildu, biribilkatu', eskuizkribuan bezala hitz hasierako herskari hasperendunarekin.

## LABELA

labela puntaz 131

Latinezko *novacula*-tik bide datorren mailegu zaharra (ik. Lhande, *labela* sarrera). Lhanderen hiztegian *labela* eta *nabela* aldaerak datoz '1. aiztoa. 2. labana'.

## LIBERA 110, 115, 116, 129

Frantsesezko *livre* 'libra (pisu neurria)' hitzaren ordaina da.

## LIMOU 115, 122, 125, 131, 132

Gaskoierazko *limou* (Palay) hitzaren ordaina da 'limoia'. Nabarmentzekoa da hitz bukaerako *-on* > *-u* bilakaera. Ik. *citron*.

## MANÉRA

manéra 114, maneria 124, manérias 'ganoraz' 113

Gaskoierazko *manère*-tik bide datorren mailegua da. *Maneria* 'modua' aldaera ere erabiltzen du itzulpenean.

## MARINADA 111, 119

Frantsesezko *marinade* 'gatzuna' hitzaren ordaina da (ik. 3. atala).

## MARMELADA 116, 117

Frantsesezko *marmelade* ‘konfitura’ hitzaren ordaina da (ik. 3. atala).

## MINETA

minetetan 126, minétaq 127

Gaskoierazko *binèt* (Palay) hitzaren ordaina bide da (‘minatxa edo ardo motela, barrikako mahats lapari urarekin batean ardoa isuririk egina’).

## MINUTA

minutabatez 123, minutabat 134

Frantsesezko *minute* hitzaren ordaina da (ik. 3. atala).

## MOUCHÉROU

mouchérou çoumbayt 109

Palayren hiztegian jasotzen den *moucheroû* ‘perretxiko mota’ hitzaren ordaina dateke: “psalliotte champêtre d’automne, appelée aussi *bole-de-nèu*”.

## MOULÉTA

moulétabat 133

Gaskoierazko *moulète* hitzaren ordaina da ‘arrautza egosteko modu jakina’ (ik. 3. atala).

## MOYÉNA 110

Gaskoierazko *mouyén* ‘modua, bitartekoa’ hitzaren ordaina bide da (ik. 3. atala).

## MUSCADA 122, 126, 133

Frantsesezko *muscade* ‘intxaur muskatua’ hitzaren ordaina bide da (ik. 3. atala).

## NOMBRE

nombria 108

Frantsesezko *nombre* ‘kopurua’ hitzaren ordaina bide da (ik. 3. atala). Nabarmentzekoa da hitz bukaerako disimilazioa.

## NUMÉRO

numérouac 108

Frantsesezko *numéro* hitzaren ordaina bide da. Hitz bukaerako disimilazioa nabarmendu behar da.

## OBJET 108

“Bi objet hoyetças garnituco duçu casserolabaten sola” dio hitzez hitz (‘bi gauza horiekin beteko duzu kazola baten zola’). Pentsatzen dut hitz egokiago bat bilatu ezinean gertatu zela, kontuan izanik jakiak direla aipatzen dituen bi “objektuak” (behi azpikia eta urdaiazpikoa). Testu idatzia baita, ez daukagu jakiterik nola ahoskatuko zuen tarteko *j* hori: sabaiko frikari ahostuna (*jujatu* hitzean bezala), edo sabaiaurreko frikari ahostuna (*biologia* hitzean bezala); fr. [ɔbʒɛ]. Ik. *arrangeatu* sarrera.

## ORDENATU

ordenaturiq 110

Lhanderen hiztegian hiru adiera hauek ditu mailegu zahar honek: “1. ordonner, conférer un ordre. 2. recevoir un ordre (sacrement). 3. ordonner, donner un ordre”. Eskuizkribuan ‘antolatua’ esanahia du.

## OUINHOU

ouinhou trancha 108, bi ouynhou buru 112, ouynhou 124, 128, 130, 132, ouinhu 125, ouinhou 126, ouynhoua 130

Lhandek *uñbu* ‘tipula’ jasotzen du zubererarako (fr. *oignon*). Hitz bukaerako *-on* > *-u*, *-ü* bilakatzeaz, ik. *cabillou* sarrera.

## PAJA

pajac 108

Frantsesezko *page* ‘orrialdea’ hitzaren ordaina da (ik. 3. atala). Testu idatzia denez, ez daukagu jakiterik bigarren silabako kontsonantea sabaiaurreko frikari ahostuna [ʒ] ebakiko ote zuten frantsesez bezala.

## PALA

palabat 127

Aranartek eta Lafittek *suphala* (fr. *pelle*) jasotzen dute (35. or.). Testuan hitzez hitz dio “igaranen doçu palabat ouñça gorrituriq”, beraz sutegiko tresnari egiten dio erreferentzia (ik. 3. atala).

## PASSOUER

passouer batetan 109, 119, 124, passouer bat étan 125, 131, passouer bat etara 127

Lhandek *passarra* (fr. *passoire*) ‘iraztontzia’ jasotzen du (ik. 3. atala).

## PÉNIBLE

lan pénibliagoua 123

Frantsesezko *pénible* ‘astuna’ izenondoaren ordaina da. Aipatzeko modukoak dira bi bokal disimilazioak: *-ea* > *-ia*- eta hitz bukaerako *-oa* > *-ua*.

## PERSIL

persil 108, péresil 120, peresil 122, pérésil 124, 131, 132

Frantsesezko *persil* ‘perrexila’ hitzaren ordaina da (ik. 3. atala).

## PESSA

pessa 110, phessabat 128

Gaskoierazko *pèce* ‘haragi zatia’ hitzaren ordaina bide da (ik. 3. atala).

## PIJOU

pijoubat 128, pijouaren 129, pijoua 129

Lhanderen hiztegian *pijo* eta *piju* ‘usoa’ aldaerak jasotzen dira zubererarako (fr. *pigeon* [piʒõ]). Bigarren silabako kontsonanteari dagokionez, *j* letra sabaiaurreko frikari ahostuna [ʒ] adierazteko erabiliko zuen.

Hitz bukaerako *-on* > *-u*, *-ü* bilakaeraz, ik. *cabillou* sarrera.

## PILATU

pilatu 115

Frantsesezko *piler* ‘eho’ aditzaren ordaina bide da.

## PILOIR

piloir bat étan 115

Frantsesezko *pilleur* ‘ehogailua’ hitzaren ordaina bide da.

## PINTOU

pintoubat 134

Lhandek *pintü* eta *pintu* aldaerak jasotzen ditu zubererarako ‘pinta (eduki neurri zaharra, pitxerraren erdia balio zuena)’.



## PLAT

plat 116, 130 plat bat étara 121, 128, 133 plat bat étan 124  
 plata 108, 134, plat hao 111, 118, plat haren gagniala 134  
 Frantsesezko *plat* [pla] hitzaren ordaina da '1. erretilua. 2. jakia'.

## POULARDA

poulardabat 126  
 Frantsesezko *poularde* 'kapoia' izenaren ordaina da (ik. 3. atala).

## PRÉCAUTIONE

précautionia 109  
 Frantsesezko *précaution* hitzaren ordaina da. Aditz elkartu gisa azaltzen da tes-tuan: "hartu duquéu précautionia". Aipatzekoa da hitz bukaerako hiatuseko disimilazioa (-ea > -ia).

## PRÉPARATU

préparatu 119, 127  
 Lhanderen hiztegian jasotzen da, *preparatü* aldaeraren ondoan 'prestatu' (fr. *préparer*). Uste dut euskalki guztiek batera dutela aditz hau.

## PURIFICATU

purifica dadin 123  
 Latineko *purificare*-tik datorren mailegu zaharra 'araztu' (fr. *purifier*).

## QUART

cuillérata quart bat ogui irin 112, hirour quart libéra sucré 117, 118, 120, 122, 123  
 Frantsesezko *quart* [kar, kart] hitzaren ordaina bide da 'laurdena'.

## RASPATU

raspaturiq 122, 126, 131, 132  
 Bloch eta Von Wartburg-en etimologia hiztegian (1996: 533) *rasper* aditza jo-tzen da frantsesezko *râper*-en aurretiagoko formatzat (hortik italierako *raspare*, es-painoleko *raspar* etab.).  
 Fonologia egokitzapenaren aldetik, nabarmentzekoa da hitz hasierako bokal protesirik eza (ik. *arraspatu*).

## SCÉLÉRI

scéléri amignibat 108  
 Frantsesezko *céleri* hitzaren ordaina da 'apioa, perrexil hezea'.

## SÉPARATU

séparatuco 118  
 Frantsesezko *séparer* aditzaren ordaina da. Behin bakarrik azaltzen da testuan: "çouré oppila erré datinian séparatuco çayçu cassérolaren baster étariq". Eskuiz-kribuan, testuinguru bereko beste pasarte batean, honen euskarazko kideko bat agertzen da: *deslotu*. Hitzez hitz dio (121. or.): "oppila cassérolaren cayhessétariq deslotcen çaycunian, marca duqueçu eguinic déla".

## SERBIETA

serbieta thobatez 113, 115, 118, 122, serbietabat étan 123, 134, serbieta di-fferent 134  
 Lhanderen hiztegian *zerbieta* (fr. *serviette*) jasotzen da, *mahaineko oihal*-en sinonimotzat. Testuan, berriz, 'ahozapi' esanahiarekin erabilia da.

Fonologia egokitzapenen aldetik nabarmentzekoa da  $v > b$  ahoskabetzea eta hitz bukaerako *-a* (ik. 3. atala).

## SERBUTCHATU

serbutchatu beyssauçu 110, 113, 114, 118, 126, serbutchéçaçu 121, 125, 126, serbutchatuco 111, 112, 115, 119, 122, 124, 125, 128, 129, 131, serbutchatcéco 124, 129, serbutchasséco 134

*Zerbitzatu*-ren kideko forma da zubereraz (fr. *servir*). Oso aditz erabilia da tes-tuan, errezeten bukaeran. Bigarren silabako [y]dun forma ohikoa bide da zubereraz (Lhandek ere *zerbütxatü* dakar).

## SIÉTA

siétabatez 108, 113, siétabat étan 130

Gaskoierazko *siéte* ‘platera’ (& *assiéte*, Palayren arabera) hitzaren ordaina bide da (ik. 3. atala). Aranarten eta Lafitteren hiztegian ere bi formak jasotzen dira (35. or.): *azita*, *zieta*.

## SOPA

sopa 128

Frantsesezko *soupe* ‘zopa’ hitzaren ordaina bide da (ik. 3. atala).

## SUCRE

sucré amignibat 112, 115, 116, sucré 117, 118, 119, 123, 126, 128, 129, 130, 132, 133, 134, soucré 118, 122, sucria 123, 129

Frantsesezko *sucré* ‘azukrea’ hitzaren ordaina da. Mugatzailedun *sucria* forma-tik atera daitekeenez, hitza *e-z* bukatua da, beraz ez da orain artean gehienetan bezala *e* mutua *a* bilakatu (ik. *tendre* sarrera).

## TABLA

tablala 108

*Table (des matières)* ‘aurkibidea’ hitzari dagokion euskarazko forma (ik. 3. atala).

## TENDRE

tendre 120

Frantsesezko *tendre* ‘samurra’ izenondoaren ordaina da. Gaur egun bukaerako *e-z* ebakitzen da, beraz ez da orain arte ikusitako kasu gehienetan bezala *e* mutua *a* bilakatu (ik. *sucré* sarrera).

## TERRINA

terrinabat 122, 123

Frantsesezko *terrine* ‘terreina (sukaldeko ontzi mota)’ hitzaren ordaina da (ik. 3. atala).

## THASSA

thassabat 119

Frantsesezko *tasse* ‘kikara’ hitzaren ordaina da (ik. 3. atala).

## TORCHOU

torchoubat etan, torchou batez 114, 115

Frantsesezko *torchon* ‘eskutrapua’ hitzaren ordaina da. Lapurteraz *tortxoïn* era-biltzen da. Nabarmentzekoa da dardarkariaren ondoko txistukaria afrikatu gabea izatea eta *-on > -u* bilakaera gertatzea (ik. *cabillou*).

## TOURTIÉRA

tourtiérabat, tourtiéran 116

Frantsesezko *tourtière* ‘ontzi mota’ izenaren ordaina da (ik. 3. atala).

## TRADUCTOR

traductoraq 124

Frantsesezko *traducteur* ‘itzultzailea’ izenaren ordaina da. Hitz bukaerako *-eur* > *-or* bilakatu izana nabarmenduko nuke (ik. *burra* sarrera).

## TRANCHA

trancha 108, 113, trancha çoumbayt 108, 112, 128, tranchatan 133

Frantsesezko *tranche* ‘xerra’ izenaren ordaina da (ik. 3. atala).

## TREMPA

trempan (eçarri) 109, 126, trempatuco 112, 114, 115, 119, trempatcen 122

Frantsesezko *tremper* ‘beratu, beratzen jarri’ aditzaren ordaina da (ik. 3. atala).

## TROSSATU

trossatuco duçu 114

Frantsesezko *trousser* ‘bildu’ hitzaren ordaina da. Testuan dio “[aza egosia] serbieta thobatez trossatuco duçu”, [‘aza] ahozapitxo batez bilduko duzu [ura kentzeko]’.

### 3. Erdal substantibo eta adjektiboak morfologikoki egokitzeko bitarteko batez

Iparraldeko euskaretan bizi-bizirik dagoen egokitzapen morfologiko bat azaldu nahi nuke laburki atal honetan: frantsesez kontsonantez (a. azpiatala) edo *e* mutuz (b. azpiatala) bukatzen diren substantiboetan eta adjektiboetan euskaraz sarritan *-a* eransteke joera. Uztaritzeokoak eta ahozkoak dira adibideak (Epelde 2004):

a. *brazeleta bat* ‘eskumuturrekoa’ (fr. *bracelet*), *estomaka* ‘urdaila’ (fr. *estomac*), *trikota bat* ‘jertsea’ (fr. *tricot*), *klianta bat* ‘bezeroa’ (fr. *client*), *kluba bat* (fr. *club*), *blonda bat* ‘ilehoria’ (fr. *blond*)...

b. *montra bat* ‘ordulari bat’ (fr. *montre*), *telefona bat* (fr. *téléphone*), *mikroba bat* (fr. *microbe*), *krabata bat* ‘gorbata’ (fr. *cravate*), *flexa bat* ‘gezia’ (fr. *flèche*), *bila* ‘behazuna’ (fr. *bile*), *grama bat* (fr. *gramme*), *trantxa’at tomate* ‘tomate xerra bat’ (fr. *tranche*), [autoko] *fara bat* ‘argi bat’ (fr. *phare*), *krexa bat* ‘1. Eguberrietako jaiotza. 2. haurtzaindegia’ (fr. *crèche*), *xeka bat* ‘txekea’ (fr. *chèque*)...

Eskuizkribuan ere *-a*-dun formak (46 adibide guztira) gailentzen zaizkie *-a* gabe-koei (11 kasu): *pajac* (108), *trancha coumbayt* (108), *casserolabaten* (108), *siétabatez* (108), *bi minutas* (109), *pessa ederbat* (110), *bi forchétarequin* (111), *hirour carrota* (113), *serbieta thobatez* (113), *tourtiérabat* eta *tourtiéran* (116), *charlotta bat* (116), *burra hortan* (117), *bi billa chocolat* (117)... Baina, esan bezala, horien ondoan badira hitz azkenean kontsonantea gordetzen duten kasu batzuk ere: *cayer hountan* (108), *bi objet hoyetças* (108), *passouer batetan* (109), *aygardent amignibat* (111), *piloir bat étan* (115), *plat bat étan* (116)...

Zubereraz azentuak bereizten ditu *-a-z* bukatzen diren hitz mailegatuen mugagabeko eta mugatu singularreko formak, Peillenek ohar honetan azaltzen duenez:

Si l'emprunt —comme il advient très fréquemment en gascon ancien— se termine en *-a*, pour distinguer la forme indéterminé: *-o* de la forme à l'absolutif [mugatu singularra]: *-a*, le souletin jouera sur l'accent: *arràga*, fraise, *arragà*, la fraise. Dans la même voie le souletin, lorsqu'il emprunte au français moderne, ajoute un *-a* terminal dès la forme indéterminée: faucheuse: *foxüsa*, fourchette: *furxèta*, cuillère: *küillèra* et pour l'absolutif joue de la même de l'accent, *foxüsà*, *furxetà*, etc. Dans ce même ordre d'idées l'accent et la phonétique nous permettent de distinguer le mot, intégré, emprunté, du mot "cité". Ex.: faucheuse: *foxüsà*. (Peillen 1998: 37-38)

Euskal hizkuntzalariak ez datoz bat euskarazko *-a* zehazki zer den definitzerakoan. Iritzi zabalduena izan da artikulua dela, baina berrikitan numero markatzen ere jo izan da (Artiagoitia 2002). Dena dela, ezin ukatuzkoa da maileguak egokitzeko bidean urrats bat gehiago dela, egokitzapen morfologiko osorako bidean pauso edo bitarteko bat gehiago.

#### 4. Azken oharrak

Lexikoiaren eratzean guztiz esanguratsua da maileguak egokitzeko hizkuntza hartzaileak zein bitarteko —fonologiko, morfologiko nahiz morfonologiko— erabiltzen duen (euskararako, ik. Hualde 2000 eta Oñederra 2009). Hainbat arrazoiengatik, hiztunek inguruko hizkuntzetatik hitzak mailegatzen dituzte beraien inbentario lexikoan izan ditzaketen hutsuneak betetzeko («gap hypothesis» delakoa). Azken urteetan fonologialarien artean interes bizia piztu da maileguen egokitze bilakabideak aztertze eta deskribatzeko (kaleratzeaz dagoen *Loan Phonology* horren lekuko, zeinetan hainbat hizkuntza pareren kasuak<sup>18</sup> bildu dituzten). Izan ere, L1 hizkuntzaren fonologia sinkronikoa aztertze interesaren dutenez ezin utzizko iturria da mailegutza ekartzen duena, haren bitartez ikus daitekeelako hots eta hots sekuentzia arrotzak nola txertatzen diren hizkuntza hartzailearen soinu egituran.

Bigarren atalean, laburki bada ere, eskuizkribu ezezagun honetako maileguetan txertatze horiek nola gauzatu diren erakusten saiatu naiz, bertako mailegu ugarietan. Hirugarrenean, berriz, Iparraldeko euskarak mailegu jakin batzuk morfologikoki egokitzeko bidean beretu duen mekanismo batez mintzatu naiz. Kanpoan geldituko ziren, seguru ere, hemen aipatu ez ditudan beste egokitze modu eta bateratze bitarteko batzuk. Frantsesetikako eta neurri handi batean gaskoieratikako mailegu horiek euskara zuberotarrak bere egiteko zein bide fonologiko, morfologiko edota morfonologiko erabili duen erakutsi beharrak nahitaez eraman nau oso gutxi ezagutzen dudan iker-eremu batera: etimologiak eta euskararen historiari emandako begiratu sakon batek bakarrik daukate argibidea ekartzea mailegu hauetako bakoitzaren nondik no-

<sup>18</sup> Euskara-gaztelania barne (Oñederra 2009). Eskerrak eman nahi dizkiot, bihotzez, Lourdes Oñederrari bere laguntzagatik, eta bereziki kontaktu egoeretako gertakariez irakatsi didan guztiagatik.

rako zehatzaz. Lekukotasun idatzi berezi honetan mailegatutako itemak euskararen soinu eta gramatika egituraren arabera zenbateraino egokitzen diren ikusteko beste biderik ez da.

Euskarazko testuen tradizioa oparoa eta emankorra izan da elizako gaietan, baina urria bestelako gai teknikoetan. Salbuespenetako bat da eskuizkribu hau. Ez gara arduratu mailegu hitzen premia eragin dezaketen faktoreak aztertzeaz; alde batera utzi dugu motibazioen gaia (mailegatzeko motibazioez, ik. Matras 2009: 149-153). Ukipen egoeretan ezin saihestuzkoak dira fenomeno batzuk, eta batzuetan ez dago argi zergatik egiten duen hiztunak —itzultzaileak, kasu honetan— egiten duen aukera. Pasarte batean *deslotu* aukera dezake, beste batean *separatu*, batean *ezarri*, beste batean *disposatu* eta abar. Hizkuntza hartzailean paraleloak badiren kasuetan (*deslotu* vs *separatu*, *ezarri* vs *disposatu*) prestigio kontuak izaten dira tartean, paralelo horiek sekula ez direlako izaten pragmatikoki guztiz baliokide (hiztunari ez zaio iruditzen elkarrizketan “efektu bera” eragiten dutenik). Adibidez, ingelesak sukaldaritzako lexikoian aspaldi bereganatuak ditu frantsesetikako *mutton*, *poultry*, *pork* eta *beef* («prestige loans» direlakoak). Garai batean, frantses aristokraziaren goi mailako sukaldaritzara finarekin lotzen ziren haragi-izen horiek. Horiek mailegatu aurretik anglo-saxoitik eratorritako ordainak soilik zerabiltzan ingelesak: *lamb*, *chicken*, *pig* eta *ox*. Bereizkuntza semantiko bat gertatu zen orduan (eta oraindik ere badirau bereizkuntza horrek): jatorrizko hitzak animaliak izendatzeko erabiltzen dira, eta frantses maileguak haragi mota horiekin prestatzen diren jakiak izendatzeko.

Prestigiodun formen hornitzailea ez da beti soziolinguistikoki indartsuena den hizkuntza izaten (ingelesezko *mango* fruitu tropikalaren izena portugesezko *mangatik* mailegatua da,<sup>19</sup> adibidez), baina maizenik hala gertatzen da. Gurean nabarmenki. Hizkuntzaz kanpoko eragileak erabakigarriak dira honetan:

The goals that speakers pursue when integrating foreign vocabulary items in conversation are oriented toward the communicative interaction and the effect that language use will have on the interlocutor. Those are shaped by the range of speakers' associations with each of the languages involved, and these associations in turn are determined by the roles and functions that the languages have in the social routines of the speech community. It is in this somewhat indirect and mediated way that social factors are involved in borrowing. (Matras 2009: 151)

Beñat Oyharçabalen bitartez izan nuen eskuizkribu honen berri. Hain zuzen maileguak nola tratatuak ziren erakusteko ekarri zidan egun batez. Harira zetorren egun haietan generabilen gaiarekin. Bereziki deigarri gertatzen zitzaion bertan azaltzen den mailegu kopuru handia, eta batez ere haien nolakotasuna. Hori da eskuizkribuaren berezitasuna, euskarazko hitzak alde batera uzten baditugu. Beñat omentzeko keinu apal-apala izan nahi du berak erakutsitako maileguak nola txertatzen —eta zein neurritaraino egokitzen— diren pixka bat polikiago ikusteko saio honek.

Esker-erakutsia alderdi askotatik zor diot, nik neuk, Beñat Oyharçabal maisuari. Omenaldi liburu honetan parte hartzen dutenek aipatu dituzte berak euskalaritzari egin dizkion ekarpen handienak —asko eta askotarikoak—, eta ez nuke lagunek

<sup>19</sup> Eta hau era berean Asiako bi hizkuntza gutxitutatik, norabide honetan: tamil hizkuntzan *man-kay* > malaysieraz *mangga* > portugesez *manga* > ingelesez *mango*.

esana errepikatu nahi. Erantsi nahi nuke beste bat, zeren, zor dizkiogun egitateen artean bada bat, nire ustez, nahitaez ezagutu behar zaiona: ikasle gazteei eta ikerketaren bidean hasi berriei beren formazioa ahal bezain osoa izateko ematen dien bultzada sendoa. Asmo eta gogo onenaz eskaintzen dautzut lan hau.

## Bibliografia

- Aranart, P. & P. Lafitte, 1941, *Vocabulaire français-basque. Les mots basques groupés d'après le sens*, Gure Herria, Baiona.
- Artiagoitia, X., 2002, «The functional structure of the Basque noun phrase», *ASJU* 44, 73-90.
- Bloch, O. & W. Von Wartburg, 1996, *Dictionnaire étymologique de la langue française*, Presses Universitaires de France, Paris.
- Chaho, J. A., 1855, *Dictionnaire basque, français, espagnol et latin, d'après les meilleurs auteurs classiques et les dictionnaires des académies française et espagnole*, Baiona.
- Clyne, M., 2003, *Dynamics of language contact*, Cambridge U. P., Cambridge.
- Coyos, J. B., 2001, «À propos de *Les emprunts de la langue basque à l'occitan de Gascogne*», *Lapurdum* 6, 391-419.
- , 2006, «L'apport lexical de l'occitan gascon béarnais au basque souletin: recherche des champs conceptuels», *Bulletin du Musée Basque* (ale berezia), 201-224.
- Egile ezezaguna, 1864, *Escualdun cocinera, ceinarekin nornahic cocina ona errechki eguin baiteçake*, Cluzeau, Baiona.
- Egile ezezaguna, 1889, *Cocinan icasteco liburua chit bearra famili gucietan lendabiccioa eusqueras*, Tolosa.
- Epelde, I., 2004, *Larresoroko euskara*, UPV/EHUko tesi argitaragabea.
- , 2008, «Impacto fonológico del contacto entre lenguas: francés y vasco en contacto», *Revista Española de Lingüística Aplicada* [inprimatzen].
- , inprim., «Herri hizkeren lekukotasunak biltzen: zubererazko eskuizkribu baten edizioa», *ASJU* 2008.
- Etchebarne, M., 2006, «L'emprunt lexical d'origine latino-romane en basque: une approche lexico-statistique». <[http://artxiker.ccsd.cnrs.fr/docs/00/07/77/30/PDF/Emprunts\\_latino-romans.pdf](http://artxiker.ccsd.cnrs.fr/docs/00/07/77/30/PDF/Emprunts_latino-romans.pdf)>.
- Gavel, H., 1920, *Éléments de phonétique basque*, RIEV 12, Paris. Berrargitaratua, Bilbo 1969.
- Gèze, L., 1873, *Éléments de grammaire basque: dialecte souletin, suivis d'un vocabulaire basque-français & français-basque*, Baiona.
- Haase, M., 1990, «Erdal hitzen mailegatzea Iparraldeko euskaraz», *Euskera* 35, 405-415.
- , 1992, *Sprachkontakt und Sprachwandel im Baskenland. Die Einflüsse des Gaskognischen und Französischen auf das Baskische*, Helmut Buske Verlag, Hamburg.
- Hualde, J. I., 2000, «Patterns of correspondence in the adaptation of Spanish borrowings in Basque», in S. Chang, L. Liaw & J. Ruppenhofer (arg.), *General Session and Parasession on Loan Word Phenomena: Proceedings of Twenty-Fifth Annual Meeting of the Berkeley Linguistics Society*, february 12-15, 1999, Berkeley Linguistic Society, Berkeley, 348-358.
- Jauregi, O. & I. Epelde, 2008, «Bokal sudurkariak tentatzen», *Euskaltzaindiaren XVI. Nazioarteko Biltzarrean aurkeztutako txostena*, Iruñea, 2008.X.6-10 [inprimatzen].

- & M. L. Oñederra, 2007, «Phonetic and phonemic implications of nasal-sibilant sequences: Spanish vs. Basque». *Phonetics and Phonology of Iberia 2007-n aurkeztutako txostena*, Braga (Portugal), 2007.VI.23-25.
- Larrasquet, J., 1939, *Le basque de la Basse-Soule orientale*, Klincksieck, Paris.
- Leizarraga, J., 1571, *Jesus Krist Gure Iaunaren Testamentu Berria*, Arroxela.
- Lhande, P., 1926, *Dictionnaire basque-français et français-basque*, Gabriel Beauchesne, Paris.
- Matras, Y., 2009, *Language Contact*, Cambridge U. P., Cambridge.
- Mitxelena, K., 1990 [1961], *Fonética histórica vasca*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- , 1995, «The Latin and Romance element in Basque», in J. I. Hualde, J. A. Lakarra & R. L. Trask (arg.), *Towards a History of the Basque Language*, John Benjamins, Amsterdam & Philadelphia, 137-169.
- & I. Sarasola, 1989-2005, *Diccionario General Vasco. Orotariko Euskal Hiztegia*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Oñederra, M. L., 2009, «Early bilingualism as a source of morphological rules for the adaptation of loanwords: Spanish loanwords in Basque», in A. Calabrese & W. L. Wetzels (arg.), *Loan Phonology*, John Benjamins, Amsterdam & Philadelphia, 193-210.
- Palay, S., 1974, *Dictionnaire du béarnais et du gascon modernes*, Paris.
- Peillen, D., 1998, *Les emprunts de la langue basque à l'occitan de Gascogne*, UNED, Madril.
- Tournier, A. & P. Lafitte, 1954, *Lexique français-basque*, Gure Herria, Baiona.
- Trask, R. L., 1997, *The History of Basque*, Routledge, London.
- Treffers-Daller, J., 2009, «Code-switching and transfer: an exploration of similarities and differences», in B. E. Bullock & A. J. Toribio (arg.), *The Cambridge Handbook of Linguistic Code-switching*, Cambridge U. P., New York, 58-74.
- Weinreich, U., 1953, *Languages in contact*, Mouton, The Hague.